




POCTEFA COMPET 'plus proiektua Akitania Berriaren, Euskadiren eta Nafarroaren arteko mugaz gaindiko proiektua da eta **I+G+B arloan, enpresen lehiakortasuna zein ETEen berrikuntza** bultzatzea du helburu, hiru lurraldeen **mugaz gaindiko lankidetzaren** bidez.

Hiru lurraldeen eremu komuna baliatu nahi da enpresa mota desberdinen arteko lankidetza eta aliantzak bultzatzeko aukera paregabatzat, horrela ekonomia adimentsua, jasangarria eta

integratzailea lortzeko erronkari helduz. Proiektuaren asmoa trakzio-enpresen (talde handiak edo enpresa liderrak) eta enpresa hornitzaileen (ETEak eta tokiko enpresak) arteko lankidetzarako **bi berrikuntza-plataforma** sortzea da, modu horretan, erakundeen arteko ezagutza-trukea sustatu, ekonomia hazten lagundu eta hiru lurraldeetan egon daitezkeen testuinguru-ezberdintasunak murriztuko dituen eskaintza teknologiko bateratua sortzeko.

ABIAPUNTUA: ESPEZIALIZAZIO ADIMENDUNEKO ESTRATEGIEN ARTEKO KONBERGENTZIAK

Lehenengo zeregina hiru lurraldeetako **Espezializazio Adimenduneko Estrategien** (RIS3) konbergentzia-guneak aztertzea izan da, aukera-nitxoak, berrikuntza-erronka partekatuak eta interes komunak identifikatzeko. ORKESTRAk egindako azterlan hori gaztelaniazko, euskarazko, ingelesezko eta frantsesezko argitalpen batean jaso da eta berau izan da hiru eskualdeen hazkunde ekonomikoa sustatzeko ekintzak garatzeko abiapuntua, mugaz gaindiko lankidetza enpresen lehiakortasunaren funtsezko faktore gisa hartuta.



LEHENTASUNEZKO LAU EKINTZA-EREMUAK AUKERATZEA

COMPET'PLUS-eko batzorde

estrategikoa mugaz gaindiko elkarriketa politikorako gunea da, ezinbestekoa intereseko eta lankidetzako eremuei buruz hausnartzeko eta ekintza bateratuak adosteko.

Lehen batzorde estrategikoan, Euroeskualdeko hiru gobernuek RIS3etatik ateratako eta COMPET'PLUS proiektuan jorratu beharrezko sektore konbergenteak eta lehentasunezko lau eremuak definitu zituzten:

- **Elektro-mugikortasuna**, arlo elektrikoan zein hidrogenoan
- **Energien hibridazioa**
- **Elikadura osasungarria**
- **ICC: industria-aplikazioetarako animazio birtualeko lankidetzaz-ildoak**



MUGAZ GAINDIKO FLUXU EKONOMIKOEN AZTERKETA

Interes komunek eremuak definitzeko funtsezko zereginetako bat RIS3 sektore konbergenteetan lurralde bakoitzeko mugaz gaindiko fluxu ekonomikoak aztertzea izan da (batez ere, erosketak eta salmentak).

Ebaluazio horri esker, intereseko zonalde eta eremuetan intentsitate handieneko fluxuek nola jokatzen duten behatu eta mugaz gaindiko eremutik ateratzen diren fluxu ekonomikoak zein diren nabarmendu ahal izan dira.


Euskadik eta Nafarroak honako ekarpen hauek egiten dizkiote Iparraldeari:

- 431 milioi euro merkatu eta ez merkatuko ondasun eta zerbitzuetan, hau da, Iparraldeko tokiko eskariaren 13,730 milioi euroen **%3,1**.

Ipar Euskal Herriak ekoizten du:

- 73 milioi euro Euskadi eta Nafarroarako ondasun eta zerbitzuetarako, hau da, Euskadiko eta Nafarroako tokiko eskariaren 163 milioi euroen **%0,2**.

Mugaz gaindiko merkataritza hazteko potentzial handia dago Iparralde-Euskadi-Nafarroatik kanpo **inportatzeko eta esportatzeko** iturri garrantzitsuak aprobetxatuz, **% 50** inguru.




EZAGUTZA TRUKATZEKO SAIOAK

Egindako analisi eta diagnostikoekin batera, ezagutzak trukatzeko lau saio egin dira, COMPET 'PLUS proiektuaren jardura-eremuetako alderdi teorikoak eta praktikoak bateratzeko:

- "Hidden Champions - International Niche Market Leaders (INML)"
- Gizarte Aurrerapena eta Mugaz Gaindiko Lankidetzak
- Espezializazio Adimenduneko Estrategien Konbergentziak - RIS3
- Mugaz gaindiko jardura berritzaileak sustatzeko ikaskuntzak

Bestalde, emaitzak aurkezteko eta mugako eskualdeek ekonomia adimentsu, iraunkor eta integratzaile bihurtzeko izan dezaketen eginkizunari buruz eztabaidatzeko, POCTEFA COMPET 'plus proiektuak honako ekitaldi hauek antolatu eta horietan parte hartu du:

- **2021eko Eskualdeen eta Hirien Europako Astea** ekitaldi paraleloa
- **EU Industry Days 2022**ren esparruan tokiko ekitaldia
- **NAVARREFA**, POCTEFA programaren bukaerako ekitaldia Iruñan



Objetivos de las sesiones de transferencia

Actividad 3.1

Sesiones de transferencia de conocimiento

Impulsar las sinergias entre el ámbito teórico y práctico sobre aspectos críticos del proyecto.

Reflexión conjunta sobre las implicaciones prácticas en el seno del proyecto.



ELEKTROMUGIKORTASUNA, ELEKTRIZITATE ZEIN HIDROGENO BIDEZKOA



Mugikortasunaren mugaz gaindiko
partzuergoa sortzea –TOPOS, MUBIL
eta NAVEAC

7 MINTEGI/BILERA / 130 PARTEHARTZAILE /
13 ERAGILE / LEKUKO BISITAK PAUEKO FEBUS-EN,
MUBIL-EN ETA NAVEAC-EN

Topaketa birtualetan, lur-bisitetan eta lan-saioetan egindako lanaren ondorioz, **euroeskualdeko lankidetza-hitzarmen bat** sinatu dute TOPOS/ ESTIA-k (Akitana-Berria), MUBILek (Euskadi) eta NAVEACek (Nafarroa), **mugikortasun elektriko, autonomo eta konektatuan** industria- eta teknologia-sarearen berrikuntza eta lehiakortasuna bultzatzen duten proiektuak sustatzeko.



2022ko apirilaren 27an eta 28an FICOBAn (Irun) egindako **GO MOBILITY** azokan sinatutako akordioak honako jardura hauek finkatzen ditu:

- Konektatutako ibilgailua ingurune errealetan probatzeko eta esperimentatzeko inguruneen azpiegiturak, garapenak eta emaitzak bateratzea.

- Osagarritasunak, proiektuak eta interes-arloak identifikatzea, topaketa teknologikoen eta gaikako taldeen bidez.
- Enpresen arteko ezagutza-espazioak sortzea elkarrekintza eta networkinga erraztuz.
- I+G+b proiektuetan laguntzea eta garapen teknologikoko proiektu berriak abiaraztea.



HIBRIDAZIO ENERGETIKOA



Mugaz gaindiko korridore
multienergetiko bat
diseinatzeko plataforma




4 WEBMINTEGI/BILERA / LAN-TALDE TEMATIKO
BATEN SORRERA / 92 PARTE HARTZAILE / 13 ERAGILE

Mugaz gaindiko **korridore multienergetiko baten** diseinuari buruzko azterlan bat egin da, Energia garbia duten ibilgailuen karga bermatzeko.

Azterlan horretan oinarrituta, lantalde bat sortu da hiru lurraldeetako industria-talde handiekin, klusterrekin, ingeniartzekin eta enpresa instalatzaileekin, ituntzean eta osagarritasun ekonomiko eta energetikoetan oinarritutako ibilbide-orri bat erdigunean jarrita.

Proiektuak garatzeko, gai hauetan lan egin behar da:

- Posizionamendua Europan eta Lankidetzazko Estrategikoa.
- Bidaiarien garraioa.
- Salgaien garraioaren deskarbonizazioa.
- Hidrogeno berdearen eta elektrolizatzaileen ekoizpena
- Itsasoko eta portuko instalazioak.



ELIKADURA OSASUNGARRIA



Hurbileko eskaintza
eta eskaria lotzeko
plataforma berritzailea



4 WEBMINTEGI/BILERA / LUR-BISITAK /
80 PARTEHARTZAILE



Parte hartzen duten enpresek **berrikuntza-plataforma** batean lan egiteko asmoa dute. Plataforma horrek eskaintza eta eskaria bilduko ditu, **sukaldaritza kolektiboaren** inguruan, eta **produktu freskoen, tokiko produktuen, oihartzunen eta/edo kalitate-marken**

hornikuntza bultzatuko du. Sektorearen egituraketan lanean jarraitzearen aldeko apustua egin da. Lortutako ondorioen oinarria izan da INTIA eta Onsen Conseilek egindako azterlan bat, mugaz gaindiko sare batek sukaldaritza kolektiboan eredu birtuosak ezartzeko dituen aukerei buruzkoa.

Horretarako, honako hauek aztertu dira: dagoen araudia, tokiko eta kalitate-markak dituzten produktu ekologikoen ekoizpena eta banaketa, eta arrakasta-kasuak zein jardunbide egokiak identifikatu dira.



KSI: SORMEN ETA KULTUR INDUSTRIAK



Gamifikazioa zein errealitate birtuala eta areagoturi buruzko mugazgaindiko kluster baten sorrera




4 WEBMINTEGI/BILERA / B2B : 3 MUGAZGAINDIKO
BILERA / 78 PARTEHARTZAILE / 13 ENPRESA

Mugaz gaindiko kluster bat formalizatu da, hainbat helburu lortzeko:

- Sektorearen ezagutza zein ikusgaitasuna handitzea eta enpresen arteko lankidetzak bultzatzea.
- Problematikei baterako irtenbideak aurkitzea.
- Osagarritasunak bilatzea, enkarguei, Europako proiektuei edota produktu edo zerbitzu berrien garapenei erantzuteko.
- Sinergiak aurkitzea, haien internalizazioa errazteko.

Bestalde, sektorearen potentziala garatzeko beharrezko gaitasun-profilak identifikatu dira.



5 BAZKIDeko PARTZUERG OA

Diziplina anitzeko talde batek zuzendu du proiektua, eta gaitasun analitikoak, enpresakoak, merkatukoak eta berrikuntzakoak uztartu ditu, bost bazkideren parte-hartzearen bidez: Baiona-Pays Basqueko Merkataritza Ganbera (taldeburua); Gipuzkoako Merkataritza Ganbera, Lehiakortasunerako Euskal Institutua, Orkestra; SODENA Nafarroako Garapen Ekonomikorako Sozietatea eta Akitania-Berria Euskadi Nafarroa Euroeskualdea.

COMPET 'plus' proiektua 2020 eta 2022 artean garatu da, eta Eskualde Garapeneko Europako Funtsak (EGEF) finantzatzen du % 65ean, Interreg V-A Espainia-Frantzia-Andorra programaren bidez (POCTEFA 2014-2020). Hiru lurraldeen arteko mugako lurraldearen garapen jasangarria sustatzeko sortutako lurralde-lankidetzarako Europako programa da.



Eskerrak: POCTEFA COMPET'plus projektuko kideek eskerrak nahi dizkiete proiektuaren hedapenean parte hartu duten partaide eta bazkide guztiei, nahiz eta COVID-19aren osasun-krisiak oztopoak, gorabeherak eta proiektuaren hasierako agendaren aldatzea eragin zuen.



www.competplus.eu

@CompeTplus

COMPET'plus

YouTube <https://www.youtube.com/channel/UCG9442klwJPznDIA06lAKQw>



Interreg
POCTEFA



UNIÓN EUROPEA
UNION EUROPÉENNE



Proyecto cofinanciado por el Fondo Europeo de Desarrollo Regional (FEDER)
Eskualde Garapeneko Europako Funtsaren (EGEF) laguntzaz finantzaturiko proiektua
Projet co-financé par le Fonds Européen du Développement Regional (FEDER)